

OSOGUNEKO ERAKASKERA
1999-2000. IKHAS URTERA.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Panama nua da? Zer da lur zerranga?
2. Lur zerranga hori ideki? zer ardiaton da?
3. Nor lotu da zerranga horren idekitzen? Nungoa zen?

II

PANAMA

Izen hori ematen diote bi Ameriken erdian den lur zerranga' hertsia eta luze bati. Amerika guzia, burutik buru hartuz, bi zathi handitan bezala da. Bi leihor² handi dire, delako lur zerranga hartaz elgari jösiak. Hura ez balitz, bi aldetarat urez ur joaiten errexago eta laburrago litake. Orain nahi bazira Xilirat³ joan urez, behar duzu itzuli bat egin, gaitza, handia eta luzea!

Hortakotz nahi izan dute bi Ameriken arteko lur-muga-hura hautsi eta handik aldean-bertze⁴ urari bidea egin, untziak xuxen xuxena han gaindi ibiltzeko, bertze itzuli handi hura egin gabe. Ba bainan nork eta nola hauts lur muga hura? Liburuetan ikhusi ta iduri du biziki hertsia eta hauts-errexo dela. Hala da ere... araberan. Nahiz hertsia den, baituke ordean cremu puska bat halere! Mendixka batzu omen dire han, askitto gorak; barne guzia harri. Heien artetik egiteko, naza⁵ handi bat bezala, uraren bidea, zioten hastetik ere, beharko zirela ez dakit zenbat miliun! Izigarriko soma bat! Halere ez ziren lotsa izan zenbeit, lan dorphe horri lotzera... bertzen diruz.

Ferdinand de Lesseps izena duen jaun baiones batek hartu zuen bere gain lan horren egitea. Lehenago ere bazuen hanxet, Suez erraten dioten toki batean, holatsuko lan bat egina. Bainan

Panamako hori dorpheago izanen zela beldur ziren. Zioten ere batzuek lan hori gizonaren indarrez goragokoa zela. «—Ezetz —Baietz—». Hor abiatzen dire lan horren egiten hasteko diru galdez.

III ADITZE IKASKUNTZA.

31. Hura ez balitz 32. Laburrago litake
33. Baituke 34. Zioten hastetik.

31. IZAN Eventuels.

z ^{eme} forme Ev. pres	z ^{eme} forme Ev. fu	z ^{eme} forme
(si j'étais)	(si j'étais)	si j'avais été
Ni izaiten banintz	izan banindadi	izan banintz
Hi izaiten bahintz	izan bahindadi	" bahintz
Zu izaiten bazine	izan bazinte	" bazine
Hura izaiten balitz	izan baladi	" balitz
Gu izaiten bagine	izan baginte	" bagine
Zuek izaiten bazintzte	izan bazintzte	" bazintzte
Heik izaiten balire	izan balite	izan balire

32 IZAN. Conditionnel Présent.

Ni (izan)	ninteke = je serais
Hi (izan)	hinteke = tu serais
Zu "	zintezke = vous seriez
Hura "	litzke = il serait
Gu "	gintezke = nous serions
Zuek "	zintezkete = vous seriez
Heik "	litezke = ils seraient

34 UKAN. Conj. à dble c pl. Indicatif.

Présent	Imparfait
C.D.S. - C.I.S.	C.D.S. - C.I.S.

Hari = à lui

Nik diot = je le lui ai	Nik nion = je le lui avais
Zuk diozue = os le lui avez	Zuk zinion = os le lui aviez
Harek dio = il le lui a	Harek zion = il le lui avait
Guk dioque = nos le lui avons	Guk ginion = nos le lui avions
Zuek diozue = os le lui avez	Zuek zionten = os le lui aviez
Heiek diote = ils le lui ont	Heiek zioten = ils le lui avaient

33 UKAN Potentiel probable.

C.D.S.	C.D.P.
Nik duket = je peux l'avoir	Dituzket = je peux les avoir
Hi duket/n = tu peux l'avoir	dituzkete/n = tu peux les avoir
Zuk dukezu = os pouvez l'avoir	dituzkezu = os pouvez les avoir
Harek duke = il peut l'avoir	dituzke = il peut les avoir
Guk dukegu = nous pouvons l'avoir	dituzkegu = nous pouvons les avoir
Zuek dukezue = os pouvez l'avoir	dituzkezue = os pouvez les avoir
Heiek dukete = ils peuvent l'avoir	dituzkete = ils peuvent les avoir